



Denbora-



1 Ordenatu irudiak

Lorategia ureztatzea ahaztu zaio Mireni, eta loreak zimeltzen ari dira. Lore hau nola zimeldu den kontuan hartuz, ordenatu irudiak.



2 Aurkitu irudian

Triste zegoen zerua, eta negarrez hasi da. Askotariko kolore eta tamainako tantak erori dira, baina hiru tanta berdinak dira. Zein?



3 Sarraileak

Sarak kutxa berezi batean gordetzen ditu bere sekretutxoak. Kutxa horretako bi giltza ditu. Giltza hauetatik zeintzuek zabaltzen dute kutxa?


-pasak

4 Sagu Jakintsua

Futboleko adituak al zarete, lagunak? Hala bada, izen bakoitza bere karguarekin edo eginbeharrarekin lotzea erraza izango da zuentzat. **Animo!!!**

J.M. Amorrortu
D. Aranzubia
D. Piterman
A. Karmona

atzelaria
presidentea
entrenatzailea
atezaina



5 Puntuak lotu

Pelok gogoko du fruta jatea, baina bat gustatzen zaio, bereziki. **Puntuak lotu, eta jakingo duzu zein den Pelloren fruta gustukoena.**

Erantzunak: 1.- 3-4-2-5-1-6-3.- 4 eta 5. 4.- J.M. Amorrortu-entrenatzailea, D. Aranzubia-atezaina, D. Piterman-presidentea eta A. Karmona-atzelaria. 5.- Udare bat.